Euskel Etala

EUZKADI GUSTIKO IZPARRAK URRUTIZKIÑEZ TA BIDAIZ IDAZKIYAK KIRIKIÑO'RI

EUSKEL IXENAK

DURANGO'N.—"Miren Arantzazu", Intza'tar Mikel eta Odriozola'tar Patirke'ren alabeari.

ONDARROA'N.—"Andoni", Etxaburu'tar Joseba eta Alegria'tar Ane'ren semiari.

Zorijonak ume ta gurasuai. Olantxe beti euzkotar zinduak.

San Julian Olasotar Jokin

Bart, gauerdian, utzi gaitu eta Jainkoa baitara juan zaigu.

Jainko Jaun onak, biotz oneko gizoneri eskeindutako sariaren erdietera juana dugu Jokin Sanjulian.

¡Jainkoa baitan bego, betiko zorionean, gure adiskide maitea!

¡Nere biozminaren andia!

Napar seme, buru argidunik baldin bada, bat ura zen.

Napar biotz onekorik bada; bat ura zen.

Zinezko euskotar eta Euskaria-ren maitalerik ba da, bat ura zen.

Kiristiar zintzoenetarik bat, ura zen.

Naparra'ko semeetan, bat bada bere aal guziak Naparra'ren onerako emanak dituena, ura zen.

Aren gogoan etzen ilundurik; aren biotzean etzen zimurdurik.

Gogoz, biotzez eta, eman zen aberriaren alde.

Aberriari eztagozkionak alde bat utzi zituen. Zinez, euskara maite zuen.

Euskaldun berria zen; naiz euskaraz itz egiteko oiturik ezpa zuen ere.

Eri-andi zagolarik; aren gaitza luzeegi irauten ziola eta unelako gaiez mintzo ginela; "ni, beti bezala" euskaraz erran zidan.

Damurik, ez nion nabaitzen, gaitzak uzten ziolako ezagupiderik, eta urrikari zitzaidan aren luze eri egotea eta aren sendotzez etsitzekoa eta erran nion:

—Ala da lur untako bizi-modua: gure bizitzeak ez du bizitzea balio, baldin zerua erdiesteko ez pa da.

Beraz, ala da; zion berak. Iru ilabetez, Jainkoari eskerrak biurtzen pairatu ditu gaitzaren gaitzak, eta oken bidez ikasi du lur untako ontasunak ezer ez direla, zerurako on ezpa dira.

Jainkoa baitarako onduа zagon; gaztezen, baño "goiz ontzen diren pikuak gutiziatzen ditu ene arimak" dio Jainkoak, eta alakoetarik zen ura.

Ez dakit zer geiago erran.

Biotzaren erdi-erditik, deitoratzen ditugu il denaren guraso eta anai-arrebak.

Jainkoa urrikal bekizue eta duzuen biotzaren miña eztitzeko, Jainkoari otoizka ari gara.

Jainkoa bortxatu detzagun otoizka; il denari, eman detzon Bere baitako betiko zorionezko atsedena.

Ala bedi.

LARREKO

(Garilla-13'ko "La Voz de Navarra"-tik.)

"Tene"-ri

Agur Tene maitea, idazle azkarra,
emakumeetako eredu bakarra.

Zale zalea
negon oraintxe
irakurtzeko zure idaztia,
eta gaur dakust
pozaren pozez
idazti onen iragarkia.

✧ ✧ ✧

Agur Tene maitea, idazle azkarra,
Ama Euzkadik ba du gaur zure bearra.

Laisterka nua
bai, erostera
idazti samur, txukun, ederra;
zuk idatzia
baldin badago
ez da-ta izango gauza landerra.

✧ ✧ ✧

Agur Tene maitea, idazle azkarra.
Eusko-Aberriaren alaba jatorra.

Deba erriko
itxas ertzetan
idatzitako idazti ori
nai-ta-ez bear
izan polita
¿beaz nola ez nik au erosi?

✧ ✧ ✧

Agur Tene maitea, idazle azkarra.
Jaunak emango dizu bear dan eskarra.

Ama Neskutza
Itziarkoak
laguntzen dizu zure lanetan.
Lan auek dira
Euzkadi'rentzat
bear bearrak bene benetan
ta jarrai beti
ba'daukazu ta
euzkotasuna zure zañetan
ta alaxe opa
dizut biotzez
Tene maitea; urte askotan
osasuntsua
izan zaitez ba
ta idatzi sendo eusko-gauzetan.

... ...

Agur Tene maitea, idazle azkarra,
aldeztu beti-beti odol euskotarra.

ZUBIGAR

Pasai'tik, garilla-12.

Izparrak bidaiz

Mañari

GEXORIK.—Alan dagoz Goiti'tar Toribe Uyartekua, Bilbao'tik makalik etorrita; eta Etxanobe'tar Juste, Urkuleta-erdikua, Arin osatu.

JUAN-ETORRI.—Madrid'tik etorri da Muela'tar Aintzane, Ares'tar Erromul bere llobiaz.

Arenetatik etorri dira Agirre'tar Joseba eta Kauldi neba-arrebak.

Pobeña'ra juan da Magunazelaya'tar Basilixe, emen egun batzuk eginda bere ume bigaz.

Karrantza'tik etorri da Sarobe'tar Kepe.

Erandio'ra juan da Barañano'tar Kelmentine.

OSALARI EUZKELTZALIEK.—Domekan etorri zan Bilbao'tik Arrese'tar Josu osalari ospatsua, Otxandijo'ko semia, Zeortu basetxeko neskia ikusten, aspaldijan gexorik dago-ta.

Udaletxe (ayuntamentu) onduan, jatzi zan kotxetik eta emengo osalari on Arcitio'tar Gotzon'egaz batera oñez juan ziran Zeortu'ra, eta geruago alantxe etorri be.

Osalari bi orrexek, ezeben erderaz itzik egin ez arantzakuan ez onantzakuan ez Zeortu'n be. Guk au gustizko pozik ikusten gendun; orreek baño gitxiago diran askok eta askok, ba, arrokerija darijola beti erderaz ekiten dautsie, señorito aixe pinkat artu orduko.

Eta orra, euzkeraz egin arren, bijek dira osalari onak, erdeldunekaz burrukan botateko lakuak edozetan, naiz gexuak osatzen, naiz musturrak aztintzen.

Bejondaizuela bijoi, arrayie.

"ERMU-ZALE"-RI.—Lenguen Kirikiño'ri eupadie bota zeuntson, orko pelotarijek diela ta eztiela.

Ba, orko bi onenai topauko geunskijoz emen Mañari'n beste bi, manoimano jokatzeko, naiz eskuz, naiz otsaraz, naiz zestellaz... kondeziño bategaz, au da, emengo eleizpien jokatzekotan, eta oste-aldien atan be.

Alimuik badau, esan. Barriketa gitxi, ta gertu poltsak.

TXIÑUELO

Zeanuri

EGURALDIJA.—Gustiz dago ederra, naiko euri ta gatx bagarik egin daunik ona lusagar-arto-belarrak orri zabal ta apain agiri dira; poz-pozik dagoz gure lugiñok.

OTSOA.—Errotaetxe'tar Joseba Mirena'k, bera ilteko abintza egiñik daukala iragarri ebanik ona ezta ezbiarrik egin daunik entzuten; aldendu biar, Txiñuelo besterik ezta bere alde egon da...

Txiñuelo esan dodan ezkero, eretxiz egi bat idazten nua: Eztago Mañaritarrak ezautzen eztauzenik, ba bein landarakaz ta bein kerexakaz, sal-erosleoi geyenetaratzen dira atsoen sakel-ondarreko txakurrak be erri ataratzeko ta, zelan arraye ez ete yake otu euren artza artu ta soka bategaz loturik atadirik-atadi "baila mariana baila" etortia... ba oindo uste dot Txiñuelo berbera ikusiko dogula eurea artz endrauari fandero joten.

EZBIAR BAT.—Igande gabeko amarrak aldian idoro eben Espaitza bitxabalian bilbelak ilda gixon bat: egun axe Bilbao'n bere seme-alabakaz igaro eban, Altzusta basurijan gotiko basetxeko Sagarna'tar Luken zan.

Ezta erraz nok egin daun jakitia, ceker edo buelta ain itxia dan lez argontzijak Belen-basora argi egiten dabe illunian itxirik, aldatz atan besterik asko lez Espaltza'ko bueltia, ta orregatik balitzake egin daunak be ez jakitia.

DABILTZANAK. — Bilbao'tik etorri dira Goikouria'tar Joseba ta sendija udaldija igaroten. Ondo etorriak zadizla ta osasun-bakiagaz zorijonak dopatzubeguz.

AGUR.—Kerexak eltzen asi ziranik ona naiko bijotz-min artu dogu; bein batetik eta bein bestetik beti agertzen ixan dira eizari aldrak gure txoriak ilteko, ameak kerexan eta umeak kabijan, au da lotsagarrija ¿nun dago gizonaren adimena? Nok begiratu agertzen ezpada, agur gure txorijak.

ZIDORRA

Garilla, 13.

Mendaro

NASKALDIA.—Donostia'tik etorri da emengo bere etxian udaldia igarotzera Izagirre'tar Sabas bere emaztiagaz.

Egun bat edo bi bere gurasuen ondoan igaro ta Santoña'ra juan da Untzueta'tar Gotzon gudaria.

Udaldia igarotzen dago emen Untzueta'tar Pantzeska abertzale zintzua.

GAISORIK.—Arkitzen da Saint Gerons ziñegotzi izanduaren emaztea. Baita Areta'tar Miren ere. Bieri azkar sendatutzia opa diegu.

ORRI BELTZA.—Igaro dan larunbatian (7'an) obiratu zan Altzola albo-errian Saizar'tar Pillipe (G. B.) Laguntzen diegu atsekabian bere senar eta gañerako sendiari.

EZBIARRA.—Egun onetako trumoe onek ekarri dituen arri ta euri gogorrak kalte aundiak egin ditu emengo basterretan. Lugiñak ba dute naikua zeregin.

NOIZ BAIT

Garilla, 13.

Gernika

Batza-etxia-ta ikusten etorrita, igaro dan eguenian euki genduzan Batzokian Blazi ta Oxobi abadiak Laburdi aldeko euskel-idazle ezagunak ("Gure Herria", aldiztingiaren egillietatik aurrenetarikoak); Zatarain'tar Anbortzi "Argia" asterokoaren eusle nagosia; Eizagirre'tar Joseba Gipuzkoako aldun autua eta Lopez Mendizabal'tar Ixaka Tolosako abertzale zintzoa.

Azkenengo onek lagunduta, Eizagirrek bere abots-zoli ederragaz, "Mendi-Mendiyan"-ren zatitxu bat abestu eban, eta abestu ederto, benetan.

Geure irakasle Arana-Goiri'tar Sabin'en illobia ikertzen bere joan zirean.

Geure eresbatzak igandero joten daben kontziertuan, pozik ikusten dogu, eusko-usaindun eresiak bere joten dituzala.

Poztasun au ezkeunke erakutsi bear baña, bear bada orrexegaitik baño ezpada bere kapaz dira geyago ez joteko-ta.

Ta eztiñogu au eresbatz-artezkariagaitik, bere ingurutik, zetan eztaukela, dabilzan askogaitik baño.

Gaur, beste eresi batzuren artean Mokoroa'ren "Euskal-soñua" joko dau.

Iñaki egunerako zeozertxu gertauteko ustea dauko geure Batzoki-Buru-Batzarrak. Gaur egingo daben batzarrean erabagiko da zertzuk jai-egin.

Ibilli ta ibilli geure Ayuntamentuak erabagi dau laster diran jayetan beste eresbatz bat ekartea.

Lengoak gitxi egiten dau alkar dantzea zabaldutearren-da bear dogu zeozer.

¡Gero izango dira kontuak!

Sei milla errial baño geyago ez ei-da kostauko-ta...

¿Sei milla, baño ez?

Esango daustazu gabonetara orduko.

Baña guk ¡¡or konpon!-

Oindiño urte asko eztirala Gernika'n arratiar senar-emazte bi bizi zirean.

Euskeldun uts-utsak zirean arren, erdera itz-egitea, nun-nai eta edonoz izaten zan euren gurariik biziena, batez bere emakumearena.

Bein emaztea mesatara-edo joyala-ta, senarra geratu zan eurak eukan dendearen zain.

Eta bere zeregiñetatik biurtu zanean itandu eutsan emazteak:

—¿Ha venido alguien?

—Ninguien—erantzun eutsan besteak.

BELU-MENDU

Ondarroa

Samin andija artu dabe abertzaliak Arriandiaga'ren eta Sanjulian'en erijotziaz. Bijon sendijek artu bei gure atsekabia. Goyan bego.

Illa onen 12'an artu dau Santa Clara Cofradia'ko lendakarijak Sota diputaduaren telegrama bat, zelanik aprobau daben morrue barriro irugarrenez errematera ataratia, ta uste dabela onguan artuko dabela. Bardin diñotsa zelanik aprobau daben lesteko mollia luzatzia, eta bardin estaketia zubi barrira artien; gustire kostako ei-da milloe bat peseta.

¡Ori dok lan egitia! ¿Oin be botuek al datoz? ¿asartuko ete die ondiño esaten Sota beragaitik dabillela?

..Bai, ondiño ezta gixon batek mesede baño oker geyago egin dabenak, alan esan eban irakurri ebanian telegramie: "Mucho desir". ¿Asartu ondiño be ori esaten?

¿Ez al dagoz bistan nok egin eban lengo morrue? ¿nok ekarri daun dragie? ¿nok egin dau biarra orrek gauzok aurrera eruateko? ¿eta ondiño "mucho desir"?

¿Zuk geyago egin ete dozu? Or zabiz Estadutik datozan diru gustiek gastetan zure etxien aurrien, iñori eztotsazu lagetan ondar apur bat atetan zeuri tellie gastau ezik, or daukazu makiña aurri ondar apur bat ez ateratiarren, balandrarik ezin atraka ta.

Ori asko eztala gura dozune egiten dozuleko zenbat elis eta zenbat eje ezta apurtu or ibai orretan. Egon zaitez ixilik geyago entzun nai ezpozu "Mucho-desir" orrek.

Clarita'ko makinistia zana, Egaña'tar Joseba, gaur obiratu dabe. Artu bei geure samiña bere sendiak, G. B.

Artibai lurrun-ontzijak amar kintal zimarroi ekarri ditu illa onen 12'an; saneurrija 180 zentimo killuak egin dotso.

BIAR

Isasondo

EUSKO-JAIAK.—Uri ontako Eusko-Batzokiak oitura duan bezela, Deun Iñaki egunean jai politak egiteko asmua artu zuan juan dan igandian batzarrian.

Goizeko 5'etan biribilketa alaia joko dute dultzaña ta txanboliñak; 6'etan jaupa abestua jaunartze ta gusti; 11'tan, uri ontan jaio edo bizi diranen 18 urtez berakoen lasterketak "cross country", sari ederrakin; amaika ta erdietan aurreskua; arratsaldeko iruretan sariak banaketa egingo da gure batzokian; gero aurresku ta gusti eusko-erromeria, illuntzian oturuntza edo banketea Jel-batzokian; eta ontarako nai duanak izena eman, eman bezaio lendakariari.

Aurretik ere zerbait egingo da; bañan oturuntza ontan bilduko da Ordizia'ko Lazkano'tar Alesander, gora Euzkadi dinar egin zuala-ta españar epaikariak jarri zioten zigorraren igesi, España-menbian ez dagon Euzkadi'ko txoko batera juanik dagonaren emazte eta semientzat. Ez gaitezen berakin aztu, gure anaia da-ta.

Zaldibi'ra datorren igandian juateko berotasun aundia dago, batetik gertu egiten da, bestetik berriz jun dan aspaldian euzko-erromeririk ikusi gabe, eta an egingo diran jaietara ¿nor gelditu juan gabe?

ONTZAT ARTU DEGU.—Aspaldiko tolosarrak EUZKADI'n ziotena, gu gertu gaude inguru abetako errietan jai-aldiak egiten edozeñi lagundutzeko; oraindik ikusi berriak gerade, gaste batzuk egon arren zenbaterañoko abertzaletasuna erri askotan dagoen, orain da ba garaia eta gerturatu gaitezen, Ataun, Olaberri, Idiazabal, Segura, Zegama, edo onelako edozein erritan lenbailen ekiteko; badira abetan erriak Jel-batzokia jarri bear dutela esaten dutenak, eta aberi lagundu egin bear zaie.

Nai dezutenak erantzun nundik lenengo asiko geraden, beti lo egon gabe.

MURUMENRI (1)

(1) Zuk egiten didazun galde orri ezin diot erantzun, ezer eztakidalako; neronek nere aldiz galdetuko det, eta baietzik ba da, esango dizut izparringi ontan,—KIRIKIÑO.

Ermu

OSATEBAKUNTZA.—Bilbao'ko Gexotegia'n osatebakuntza egin dautsoe gure adizkide Olañeta'tar Justa'ri. Sendatuaz dua Jauna'ri eskerrak.

GEXORIK. — Elixakuak artuta oso txarto aurkitzen da Ureta basetxeko gizon zarra Ormaetxea'tar Iñaki. Jaunari arren eskatzen diot sendatzia.

KALAMU'RA.—Gar aundia dago gaur ospatzeko dan jaira juateko uri ontan, batez-be gastien artian; gustiok juan biar gara, ez dago urruti be ta.

BARTZELONA'RA.—Astarloa'tar Illare neskatillia juan yaku, lagun daula Jungitu'tar Miren, bere beso apurtua imintzera; aldi luzetxua da neskato gaxo oni bilbel batek apurtu eutsala besua; gaxuak ez dau besterik ama baño; ta orregaitik Bizkai-Aurrezki-Kutxak (Caja de Ahorros Bizkaina) bere laguntasuna gertau dautso, eta onen lepotik juan da besua imintera.

Lan ederra egin dau Aurrezki-Kutxa'k, eta izparringi onen bitartez artu bei neure zorion-agurra Artezkariak.

UDALA'RI.—Ezta gaur lenengoz aitatzen dodala; baña gaur barriro nator gomutau eragiten, biar-biarrekua dala uri onetan urrutizkin edo telefonua; beste uri batzuk badiardue eskakixunak sartzen Aldundi'ra, eta uri onek be eskatu biar leuke, lo egon barik.

OTSEINTZIA LAGA.—Aspaldiko urte mordozka ederrian emen bidezain edo kamiñeru izan dan "Iñisio"-k juan dan astian utzi dautso, urtiak bete ditualako. Nor sartu eztapaltako.

MADRID'TIK.—Etorri dira azterketa (esamiñetan) ondo urtenda Olañeta'tar Bitor eta Endika. Zorionak.

LURR-IKARIA.—Emengo gizon zar batek esan daust astelenian lurr-ikaria egon zala; neuk galde neutson ia zek eragiten daun ori, eta erantzun eustan lur barruko aixe batzuk ixten dirala orrek. ¿Ondo ete eguan, Kirikiño, gixon zar axe? Au galdetzen dautzut astronomua puskat zarielako. (1)

ERMU-ZALE

(1) Aixiak bai... zereko aixiak!—KIRIKIÑO.

Deba

IZPAR BELTZAK.—Urkiri'tar Joseba, zaldun gastea, gaitz gogor batek bizitza obera eruan dau (G. B.)

Atsekabian laguntzen diegu bere sendi itunduari.

Agirre'tar Apolone'k ere, bere sendi abertzalia negarrez utzirik, Goiko Jauna'ri gogoa eman dio (G. B.)

Bere senar Egaña'tar Nikola eta sendi gustiari gure laguntasuna eskeintzen diogu beren atsekabian.

ESKONTZA.—Ostiralian eskondu ziran Larrañaga'tar Purdentzi eta Muxika'tar Eukene neska zintzua.

Aitama bitxi izan ziran Muxika'tar Joseba eta Larrañaga'tar Juste. Oturuntza Kaba'ren jatetxe ospatsuan egin zan eskonberrien izenian.

Zorionak senar-emazte berriei.

¿ZER OTE?.—Idazten ari gerala artu degu izparra sekuleko uyola datorrela Oñati-Bergara ziar Deba'runtz.

Bildurrak ikaraz, ezetako kemenik gabe laga gaitu izpar itzal orrek. Dana dala, ene irakurlia, badezpadan betiko agurtzen zaitut, eta uyolak eruaten ezpa'gaitu urrengo baten izpar geyago emango dizut.

Uyolia baño len bukatu daigun eta bidaira bota... eta ondo bizi gure partez Agur! (1)

ASIER

(1) Gizona!... ipiñi gerrijan, edo kortxo batzuk, edo zaragi bat utsitu ta gero gerrijan lotu, ta uyolak ¿zer ein biar dau ba?.—KIRIKIÑO.

Compañía Naviera
SOTA y AZNAR
BILBAO
LINEA DE URUGUAY Y ARGENTINA

Modernos y rápidos vapores en condiciones especiales para este tráfico.

SERVICIO MENSUAL RAPIDO

Hacia el día 18 de julio saldrá de Bilbao el vapor

AYA-MENDI

de 10.800 toneladas de carga.

En viaje directo para los puertos de **Montevideo, Buenos Aires y Rosario de Santa Fe.**

Admitiendo carga sin transbordo para los mencionados puertos.

También admite carga para todos los puertos de la República Argentina; Uruguay y Paraguay, con conocimiento directo desde Bilbao y transbordo en el puerto de Buenos Aires.

Para toda clase de referencias, dirigirse a los

Sres. Sota y Aznar
Apartado núm. 13
BILBAO

J. DE LLOBET
Rambla de las Flores, número 4, 1.º
BARCELONA

Médico exagregado de los Hospitales de París. Consulta de 3 a 5. Económica de 12 a 2.
Garganta - Nariz - Oídos

LA COLMENA
Fábrica de caramelos y bombones de VICENTE GALINDO
Ronda, 16. Teléfono, 9.305. Bilbao.

SASTRERIA - CAMISERIA
MUÑOZ
Inmenso surtido en tejidos ingleses de céfiro, percal, oxford, popelin, franela, "taffeta" y sedas para camisas a medida.
Bidebarrieta, 12, y Jardines, 1. Teléf. 337.

Compra-venta -:- Hipotecas y -:- Administración de **Fincas**
CONSULTAR CON
A. ELEJOSTE Agente directo
BANCO HIPOTECARIO DE ESPAÑA
Préstamos de 5 a 50 años al 5,50 por 100. No cobro comisión.
Artecalle, 4, 1.º. Bilbao. T. 9.069.

MOTORES
de gasolina, Diesel y Semi-Diesel
PARA ACEITES PESADOS



SOCIEDAD OTTO HAFERKAMP, en C.TA
Justiniano, 12, Madrid.-Teléfono, 18-36 J. Apartado, 768

CAJA DE AHORROS MUNICIPAL
para vuestras economías
BAJO EL PROTECTORADO DEL GOBIERNO Y GARANTIA DEL EXCMO AYUNTAMIENTO

Capitales impuestos: 92 MILLONES
Reservas: 7 MILLONES
Sorteos de premios ordinarios - extraordinarios
22 sucursales